



Erantzunak: 2.- Peter Sagan. **3.** Espainiako Vuelta, Frantziako Tourra eta Italiako Giroa.

AZOKA



'Bizikleta lapurtu didate'

Aneren bizikleta desagertu egin da; norbaitek lapurtu dio. Batean zein bestean bila aritu ondoren, jabetuko da gobernuz kanpoko erakunde batek daukala. Baina berandu izango da. Erakundeak Afrikara bidali du, Gambiara. Bizikleta berreskuratzeko ahaleginean, eskaera formal bat idatzi, eta gutun bidez bidaliko du Anek, aitonaren laguntzarekin. Bueltan, Sarubak erantzungo dio, bere adin bereko neskatila gambiar batek. Anek bizikleta galduko du, baina beste lagun bat izango du.

Aritz Mutiozabal eta Maite Mutuberria
Argitaletxea: **Ibaizabal**



'Kattalin bizikletan'

Oraingoan, Kattalinek bizikletan ibiltzen ikasi beharko du. Hasieran, oso zaila irudituko zaio, baina, apurka, gero eta hobeto moldatuko da bi gurpilen gainean.

Liesbet Slegers
Argitaletxea: **Ibaizabal**